

Costa Urola



Santo Tomas azoka, babarrunaren eta sagardoaren inguruko festa



Dantza polita eskaini zuten Orbeldi Dantza Taldekoek Zumetaren muralaren aurrean.

Juan Karlos Balerdik jantzi zuen babarrun onenaren txapela eta Joxe Manuel Lizarraldek sagardoarena

JOSU ARANBERRI USURBIL

Martes, 17 diciembre 2019, 08:55



. Giro polita izan zen igandean Gabonen atarian ospatu zen Noaua! Kultur Elkarteak antolatutako Santo Tomas azokan. Abenduaren 21a datorren larunbatean bada ere, ia astebete lehenago etorri zen Santo Tomas eguna Usurbila eta beste behin ere nahikoa jan eta edateko aukera izan zen herriko pilotalekuan.

Herritarrak frontoi ingurura gerturatzerako prest zegoen dena. Txistorra eta taloa egiten batzuk, herriko sagardo produktoreen sagardoak mahaietan sagardoa, gaztainak erretzen ere bai, eta bien bitartean, postu desberdinak ere bai produktu eta aukera desberdinekin. Igandeko azokaren antolatzailea zen Noaua! Kultur Elkartearen postua ere topatu zitekeen pilotaleku erdian. 'Photocall' delakoa egiteko aukera eman zuten. Honenbestez, igandean frontoi ingurura gerturatu zirenek aukera zabala izan zuten eguerdia bitartean. Batetik, herriko sagardo ekoizle desberdinen sagardoak

probatzeko aukera izan zen, sagardo lehiaketara aurkeztutakoak hain zuzen ere. Bestetik, ohikoa den bezala, txistorra eta talo postuak ere arrakasta handia izan zuen. Bien bitartean, Udarregi ikastolako ikasleak postreekin,

Orbeldi dantza Taldekoak datorren urteko egutegiarekin, Zuberoako produktudun otarren salmenta eta banaketa, Xua Gurasoekin Etxera herri ekimena denetik izan zen.

28 ekoizle

Hala ere, azken urteetan bezala, babarrun eta sagardo lehiaketak izan ziren beste behin ere frontoi aldera gerturatu zirenen arreta piztu zuena. Herriko 28 ekoizleren babarrunak ikusteko aukera izan zen. Kalezarko Izarpe etxeko Juan karlos Balerdik eskuratu zuen txapela. Bigarren saria Zubietako Zugasti baserriko Pili Arroyoren babarrunarentzat izan zen eta hirugarren postua, berriz, Aginagako Galdagorri baserriko Idoia Orbegozorentzat.

Sagardo lehiaketari dagokionez, azken urteetan bezala herriko elkarte desberdinetako kideak aritu ziren epaimahai lanetan. Lehiaketara aurkeztutako 19 sagardoak probatzen nahikoa lan izan zuten eta Zubietako Etxetxo baserriko Joxe Manuel Lizarralde jaso zuen iaz bezala irabazlearen txapela. Bigarren postua Aginagako Aldapa baserriko Antonio Eizagirrek egindako sagardoak eskuratu zuen eta Santueneako Ana Esnaolaren sagardoak hirugarren postua.



Horrez gain, Santo Tomas azokaren aitzakian, Orbeldi Dantza Taldeko kideek urteko azken dantza saioa eskaini zuten Mikel Laboa plazan, frontoi atzeko Zumetaren muralaren aurrean. Haur, gaztetxo, heldu nahiz begiraleek dantza polita eskaini zuten.

La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Costa Urola

[Top 50](#)

- 1 Taller práctico sobre la instalación de energías renovables en las viviendas
- 2 Aparcamiento de autocaravanas en Itxasmendi
- 3 «Empezó a gritar a su vecino con un arma y le amenazó con pegarle un tiro»
- 4 Emakume arraunlariekin 2020ko egutegia
- 5 URA ha iniciado los trabajos para la recuperación ambiental de la regata de Iñurritza

0 Comentarios 

Noticias relacionadas

Asteburuan berriz hondartzara joango dira herriko senior taldeak

Aurrekontu parte-hartzaileen bilera datorren asteartera aurreratu dute



1.000 euroko erosketa bonoa eta 200 euroko bost zozkatuko ditu Bertanek



Patrocinada

INSTITUTO PULEVA DE NUTRICIÓN

¿Cómo sabes si tus hijos toman todo el hierro y Omega 3 recomendado?



CONTENIDO PATROCINADO

Enlaces Patrocinados por Taboola

Trata de no jadear cuando veas a Tamara Falcó sin maquillaje

Cash Roadster

La bella hija de Belén Esteban que no conocías y es clavada a su madre

Noteabley

Intestino: Olvidate de los probióticos, y haz esto en lugar de eso

Nutravia

MÁS NOTICIAS

por Taboola

Tiempo en Gipuzkoa: aviso amarillo por olas de 3,5 metros y vientos del sureste de hasta 100 km/h

Juntarse por Navidad - A partir de los 50

Fotos



Teledonosti celebra su 25 aniversario en el Teatro Victoria Eugenia

Las mejores imágenes del Inter-Barça



150 invitados brindan en el Mirador de Ulia de Donostia

Photocall de las Bodas de Plata de Teledonosti

Vídeos



La Ertzaintza se incauta de mil plantas de marihuana en una fábrica de

Zumaia



© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.
Domicilio social en Camino de Portuete, 2 San Sebastián 20018



[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)